



SL-Gi 42 KURTZETXIKIKO BIRA





SL-Gi 42 KURTZETXIKIKO BIRA

Ibilbide labur honek hainbat sekretu eskaintzen ditu. Ospitale ingurutik hasi eta Kurtzetxikiko Larragain tontorrerako bidean artadi eder bat dago, eta errekueratutako elurzulo bat. Aukera ematen du Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako tontor ezagun batzuen panoramikaz gozatzeko.



MIDE

<p>Ibilbidearen maila tekniko eta fisikoa neurtzeko metodoa. Zailtasun maila da 1etik 5era, txikienetik handienera.</p>	Denbora		2h 10'
	Igoera desnibela		581 m
	Jaitsiera desnibela		581 m
	Distantzia horizontala		6,5 km
	Ibilbide mota		Zirkularra
	Ingurune naturalaren gogortasuna		1
	Orientazioa ibilbidean		2
	Zailtasuna desplazamenduan		2
	Egin beharreko esfortzua		3

MAPA



IBILBIDEAREN AZALPENAK

- **(A) Ospitalea.** Ibilbidea hasten da Debagoieneko ospitalearen aurreko panel informatiboan. Etxezuritik gorantz doa errepidetik, Antzarigarturako bide asfaltatutik, alegia. Saihesbide azpitik pasatu eta gero, bide asfaltatua utzi eta eskumara hartzen du pistatik. Handik segitzen du aurrera 900 metroan, eta gero ezkerrera egiten du gorantz. Hurrengo bidegurutzean ezkerrera egiten du, eta zuzen segitzen du bidegurutzera iritsi arte. Han pistak eskumara egiten du gorantz. Aurrera doa Bedoñatik datorren PR-Gi 92 ibilbidearekin elkartu arte. Gero, ibilbide biek bide berdina jarraitzen dute Larragain tontorreraino.

- **(B) Larragain tontorra.** Merezitako atsedendia hartu ostean, bidea doa beherantz. Laster ezkerrera egiten du. Bidetik metro batzuk aldentuta eskumara aukera dago elurzulo bat ikusteko. Bideak metro batzuk egiten ditu aurrera, eta pasatzen du langa bat. Artadian zehar behera doa bide zabalago batekin topo egin arte. Hau beherago igoyerako bidearekin elkartzen da eta segitzen du irteera puntura arte.

1



- **Kurtzetxikiko ikuspegiak:** Kurtzetxikiko Larragain tontorretik mendebalderantz Leintz bailara osoa, eta ekialderantz Aizkorri mendikatearen ikuspegia.

2



- **Gotorlekua:** Larragaingo gailurrean eraiki zuten aldi baterako defentsa gotorlekua, material iraunkorrik barik egina. Napoleonen garaiko gerretakoa, erretiradan eraikia, edo karlistadetakoa izan daiteke, XIX. mendekoa. Gaur egun bere forma bakarrik antzeman daiteke erliebean.

3



- **Elurzuloa:** putzua dago lurtean zulatua, eta kareharriz eta hareharriz inguratuta beheraino. Hortik ateratako izotzaz egiten ziren izozkiak eta sorbeteak. Erabiltzen zuten ere edariak hozteko eta meningitisa bezalako gaitzak sendatzeko.

Ar



- **Artadi kantauriarra (Quercus ilex):** klima mediterraneari lotutako basoa itxia dugu, gorde dena gainazaleko lurzoruetako eremuetan. Horri lotuta daude klima mediterraneoko espezie tipikoak, adibidez endalaharra (*Smilax aspera*).

- PR-Gi 91 Erregebidea-Bedoña
- Herrigunea-Bedoña